

**DURANGOKO XXXIII.  
EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA**



# DURANGOKO XXXIII. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

1998.eko abenduaren 3, 4, 5, 6, 7 eta 8an.

J. L. Lizundia - R. Badiola

## EUSKALTZAINDIAREN AZKEN ARGITALPENEN AURKEZPENA

### Aurkezleak:

1. Jose Luis Lizundia, euskaltzain urgazlea, Euskaltzaindiko idazkariorde-kudeatzailea eta Onomastika batzordeko kidea.
2. Ricardo Badiola Uriarte, euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiko argitalpen eragilea.

## AURKEZTU DIREN ARGITALPENAK

1. Euskaltzaindiaren Arauak: lehen karpeta.
  1. karpeta: 1994-1997: 1. zenbakitik 75. rainoko Arauak barnetzen ditu: CD-ROM interaktiboan.
  2. ARAUAK 2. karpeta: 1997-X: 76. zenbakitik 84. artekoak.
  3. *A. d'Abbadie: 1897-1997*: Euskaltzaindiaren XIV. Biltzarra. Hendaia, 1997.
  4. *Nomenclátor de Apellidos Vascos / Euskal Deituren Izendegia*.
  5. *D.G.V. / Orotariko Euskal Hiztegia: Kor- Maj. XI*. liburukia.
  6. Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia: '1997.eko literatura sariak' eremuko irabazleen liburukiak, hots:
    - 6.1. *Ipuinak eta bertsoak*: R. Maria Azkue saria, 1996.
    - 6.2. *Hizkuntza, Kultura eta gizartea*: Mikel Zarate saria, 1997.
    - 6.3. *Nada de agua en Madrid*: Txomin Agirre saria, 1997.
    - 6.4. *Kea urruntzen*: Felipe Arrese Beitia saria, 1997.
    - 6.5. *Burdindenda*: Toribio Altzaga saria, 1997.

## AURKEZTEN DIREN LIBURUKIEN EDUKIAZ

1. Euskaltzaindiaren ARAUAK: karpetak: eta 2. Lehen karpeta 1994.eko urriari hasi zen eta 1997.eko irailean bukatu, alegia hiru urte bitarteko ARAUGINTZA sartzen

da lehen karpeta honetan. Berton frogatu ahal duzuezen lehen zebakitik 75 artekoak dituzue. ARAUrik aipagarrienak honakook dituzue: aurritzien erabilera: *bait-, ba-; -z gero*; singular hurbila: *hau guztiau*; zebakien deklinabidea: *hiru, lau...*; atzizkiena: *-zio: administrazio, segizio, zibilizazio...*; *bat* eta *batzuk*-en deklinabidea; *benetako, ohiko, betiko*; *iritzi, arazi*; adizki alokutiboak edo hikako moldearena: *ninduen: nindian, nindinan...* dakusat: *zakusaat/ zekusaat, zakusanat/ zekusanat*; daroat: *zaroaat/ zeroaat... zaroanat/ zeroanat...*; diptongoz bukatzen diren izenen deklinabidea: *lau, gau...*; hiztegi batua: *a- ... iguzki/ eguzki...*; Munduko estatu izenak, hiriburuak eta herritarren izenak; Munduko geografiako zenbait izen: *mendiak, ibaiak, itsasoak: Alpeak... Danubio... Bizkaiko Golkoa... Ozeano Barea...*; orduak nola esan: *hamarrak hamar gutxi/ hamarrak hamar gutxiago...*; zebakien deklinabidea: *hiru, lau...*; Mundu zabaleko uharte nagusiak: *Azoreak / Azore uharteak; Siberia Berriko uharteak...*

\* \* \*

2. Euskaltzaindiaren ARAUAK 2. KARPETA: 1997.eko azarotik aurrera eta 76. zebakitik gorakoak; izen klasikoak; euskal aditz laguntzailearen berrargitalpena...

### Karpeta honetan:

76. Araua: Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabakia: adibidez: *Adrasto, Antioko, Bruto, Dario, Epikuro, Eskilo, Fedon, Gaio, Hadriano, Isokrates, Juliano, Karo, Kleopatra, Lisipo, Lukulo, Martzial, Neron, Olinpias, Perikles, Platon, Regulo, Safo, Tales, Tiberio, Ulpiano, Vero, Vitruvio, Xerxes, Zeltso, Ziro...*

77. Hiztegi Batua: *Ihabali-irudi* berbetaraino,

78. Aditz laguntzaile batua: *naiz, gara, natzaio, nakion, diezaioan, zenidaten...*,

79. Hiztegi Batua: *irudialdatu-jorratzaile* berbetarainokoa,

80. Hiztegi Batua: *josi-koala* berbetarainokoa,

81. Hiztegi Batua: *koartel-kontsultatu* hitzetarainoko zerrenda,

82. Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoak, adibidez: *Ariadna, Bako, Edipo, Febo, Helena, Ikaro, Kako, Jupiter, Leto, Minerva, Nartziso, Orfeo, Peelope, Remo, Saturno, Teseo, Urania, Venus Zeus, Zirtze...*

83. Hiztegi Batua: *kontsumitu-lan* artekoak.

84. Hiztegi Batua: *lanabes-lekoa* zerrenda.

\* \* \*

3. *A. d'Abbadie: 1897-1997: Agiriak*. Hendaia, 1997.eko iraila. Liburuki honek Biltzarreko lau ekitaldiren berri eskaintzen digu. Eusko Ikaskuntzak eta Euskaltzaindiak Anton Abbadiaren mendeurrenean, 1997ko irailaren 24tik 26ra antolaturiko Biltzarrean aurkeztu txostenekin partatua.

Ekitaldiotan, besteak beste, hamar euskaltzain osok parte hartu zuten.

Argitalpen honetan, guztira 47 txosten azaltzen zaizkigu, alegia, 24 euskaraz, 12 gaztelaniaz eta 11 frantsesez. Aipatu Nazioarteko Biltzarrean Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak, Deustukoak, Pauekoak, Baionakoak, Pariskoak eta Bartzelonakoak izan ziren, besteak beste, partaide.

Konparatzen baldin badugu Anton Abbadia hil zen urtean Donibane Lohizunen, “Société d’Ethnographie Nationale et d’Art Populaire” erakundeak antolatu Biltzarrean gertatutakoarekin, hots, bertako testu behinenak *La Tradition au Pays Basque* (1898) liburukian batuak, denak frantsesez zirela —salbu Casals, Becas, Otaño eta Diharassarri koplarien euskal bertso sarituak—, pentsa genezake Anton Abbadia bere gazteluko hilotik iratzarriko balitz poztasun edo bozkarioz beteko litzatekeela, ikusiz nola ehun urteren buruan beraren oroimena ez den itzali, 1851ean, ereiten hasi zen hazia fruitu ederrik ematen ari dela, berak hasitako obrak baduela jarraitzailerik, ez zela alfer-lana izan, eta Euskal Herriak oraindik bizirik dirauela.

Bestalde eskerrak azaldu nahi dizkiegu jarraiko erakunde-entitateei eskaintako basesarengatik bai Biltzarra egiteko eta liburukia argitaratzeko orduan ere, alegia:

Akitania-Euskadi-Nafarroa Lankidetzeta Fondo/Fondo de Cooperación Aquitania-Euskadi-Navarra.

Eusko Jaurlaritzza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila/Gobierno Vasco. Dpto. de Educación, Universidades e Investigación.

Conseil Général des Pyrénées Atlantiques,  
Region Aquitaine.

Hendaiaiko Udala,  
Sarako Udala.

Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco,  
Upresa 5478. Bordeaux III / CNRS.

\* \* \*

#### 4. *Nomenclátor de Apellidos Vascos / Euskal Deituren Izendegia.*

Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak prestatu eta batzordeko idazkari den Mikel Gorrotxategi Nieto jaunak paratua. Eta paratzailearen laguntzailea José M. Fernández Anakabe izan da.

##### **Argitaratzaileak:**

Madrileko Justizia Ministerioa,  
Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila,  
Euskaltzaindia.

Liburuki honetan ez dira ageri euskal deitura guztiak. Egun arruntenak direnak sartu dira, egokitze arazoak izan edo ez, eta ia ez dira sartu joan diren mendeetan korritzen zutenak, ezta gure egunotan erabilerarik ez dutenak edo galdu direnak ere.

Argitalpen honetan erabakitako egokitzapenez aurreko idazkera-tradizioa eteten da. Hala eta guztiz, etenak ez luke inor harritu behar. Izan ere, euskal deituren itxura aldatuz joan da garaitik garaira, Administrazioako hizkuntzen (gaztelania, frantsesa eta gaskoie-

ra, batez ere) usarioekin batera. Horregatik gertatzen zaizkigu harrigarri *Navasqüés* edo *Ybarra* bezalako egungo deiturak, behialako idazkeren lekuko. Aipatzekoa da, orobat, garrantzi handikoa baita, hizkuntza horien fonetika moldeetarako egokitzea, adibidez, *Mendiburu*, Ipar Euskal Herriko dokumentazioan *Mendiboure*, eta Hegoaldean, batzuetan, *Mendiburo*.

\* \* \*

5. *Diccionario General Vasco / Orotariko Euskal Hiztegia: "Kor, Koraia, Korail... Maju, Majua..."*: *Kor-Maj*. Tomo XI / XI. liburukia. Lehen liburukia. 1987.ean argitaratua dugu.

Argitaratzaileak:

Euskaltzaindia,  
Editorial Desclée de Brouwer, S.A.,  
Ediciones Mensajero, S.A.,

Babesleak:

Eusko Jaurlaritzza,  
Nafarroako Gobernua,  
Arabako Foru Aldundia,  
Bizkaiko Foru Aldundia,  
Gipuzkoako Foru Aldundia,  
Dirección General de Enseñanza Superior del Ministerio de Educación y Cultura.  
N.º de ref.: APC1998-01-37.

\* \* \*

6. Bilbao Bizkaia Kutxa- Euskaltzaindia: 'Literatura sariak, 1997' eremuan irabazle izan ziren liburukiak hurrengok dituzue, alegia:

- 6.1. *Ipuinak eta bertsoak*: 'Resurreccion Maria Azkue' saria irabazleak: batzuk.
- 6.2. *Hizkuntza kultura eta gizartea*: 'Mikel Zarate' saria. Joxe Manuel Odriozola Lizarribar jaunak irabazitako saria.

Liburuki honen barne filosofia harikaltzen duen metaforarik agertzekotan, Xalbador bertsolariaren irudiarri hirugarren osagai bat emenda da-kioke. Horretarako haren "herria da gorputza, hizkuntza bihotza" metaforari liburu honetan "arteria-kultura" osagaia gehitu zaio.

Beraz zera litzateke: a) gorputza-erria; b) bihotza-hizkuntza; c) arteria-kultura.

- 6.3. *Nada de agua en Madrid*: 'Txomin Agirre' saria. Pello Esnal Ormaetxea jaunak irabazitako saria.

Eleberri honetan, 1977ko udagoienara garamatza kontalariak: azaro asteburu batera. Ostegun arratsaldean hasten da kontakizuna, Felix apaiz

langilea aroztegitik irteten denean; eta astelehen arratsaldean amaitu, gaueskola bukatuz gero.

- 6.4. *Kea urruntzen*: 'Felipe Arrese Beitia' saria. Mirari Garzia de Cortazar andereak irabazitako saria.

Olerki solteak ditugu. Gaiaren eta estiloaren aldetik elkarren arteko lotura nabarmenik ez dute.

- 6.5. *Burdindenda*: 'Toribio Altzaga' saria. Karlos Linazasoro Izagirre jaunak irabazitako saria.

Antzerki-lan hau tragikomedia sasieruditu bat dugu, ekitaldi bakar batean emana. Obra honetako mugak labankorrek dira, ezer ez da finkoa, iraunkorra, ukiezina. Giroa itogarria, obsesiboa, zorameneko.

\* \* \*

7. *Euskaltzaindiaren argitalpenen katalogoa*. Iaz argitartua eta urte honetan eranskina ezarria dugu, zeinetan, frogatu ahal duzue, Euskaltzaindiak, orain arte, argitarurikoaren barri eskaintzen baitu.

Liburuxka hau Bilbao Bizkaia Kutxak finantziatua dugu, baina 1998. urteko eranskina, Euskaltzaindiak berak finantziatua du.

Katalogo honetan hurrengo atal edo eremuak aurkitu ahal dituzu, alegia:

1. EUSKERA agerkaria, Euskaltzaindiaren aldizkari ofiziala, 1920.etik gaur egun arte argitaratu izan dena. Eta honen barruan, azken urteotan zabalitzen edo hedatzen ari zaigun produktua, alegia, CD-ROM multimedia: 1920-1978 urteen bitartean agerturiko aldizkariak eskaneatu eta aurkibide bereziz hornitua eta baita ARAUAK lehen karpetaren edukia duen CD-ROM multimedia, lehen aipatu duguna.

2. ARAUAK 1 eta 2. Lehen karpeta iaz bukatua, alegia, 1994.eko urrian hasi eta 1997.eko irailean amaitua. Euskaltzaindiak azken urteotan egiten ari den eguneratzearen lekuko ditugu karpetok. Bestalde, urte honetan, Euskaltzaindiak CD-ROM multimedien argitaratu du lehen karpeta, alegia, lehen Arautik 75 arteko Arauak. Oraingo lehen karpeta du Euskaltzaindiak salgai CD-ROMean, baina, bigarren karpeta, dagoeneko erdizka duguna amaitzerakoan, hau ere, CD-ROMean argitaratzeko asmoa dauka Euskaltzaindiak.

3. EUSKARAREN LEKUKOAK. 1979.ean hasi eta gaur egunerarte, 19 liburuki argitaratu ditu Euskaltzaindiak, gure berbetan adituak izan diren autore behinenen tesuak dituzue berauek.

4. IKER bilduma. 1981.urtean hasi eta egun arte 10 liburuki argitaratu ditu. Azkena egunotan hil zaigun Federiko Krutwig Sagredo jaunari beraren 50.urte Euskaltzaindian- euskaltzain oso- izendatu zutenaren oroigarri.

Eta orain, gero frogatu ahal dugunez, R. Lafon izanaren artikulua: VASCONIANA. Iker, 11, laster batez kaleratuko duguna.

5. ONOMASTICON VASCONIAE. Sail hau 1986.urtean hasi zuen Euskaltzaindiak. Dagoeneko- toponimia eremu honetan- 16 liburuki argitaratu ditu. Sail honetan

Euskal Herriko hainbat tokitako toponimia ikerketa bultzatzen da, eta ahal den neurrian, finantziaketa lortzean, argitaratzen ditu Euskaltzaindiak ikerketen ondorioak. Laster batez argitaratuko ditugu, jarraikook, alegia: *Urretxu eta Zumarragako toponimia* deritzan liburukia Jose Luis Ugarte Garrido jaunak paratua: *Onomasticon Vasconiae*, 18 eta Angeles Libanok *Toponimia Medieval en el País Vasco: letras G-O*, *Onomasticon Vasconiae*, 19. liburukiak.

6. JAGON bilduma. Sail honetan liburuki bi kaleratu ditu Euskaltzaindiak, alegia, 1982.urtean *Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketako* bertsoak eta, gero, 1987.urtean, *Iparragirri* buruzko zenbait txosten edo Iparragirre pertsonari buruzko ikerketa-beharrak.

7. HIZTEGIAK eta IZENDEGIAK: Eremu honetan 11 liburuki argitaratu ditu Euskaltzaindiak.

8. SOZIOLOGIA saila. Eremu honetan 1977.etik gaur egun arte, bederatziratu liburuki argitaratu ditu, besteak beste, *Euskararen liburu zuria*.

9. GRAMATIKA saila. Esparru honetan 15 liburuki ditu Euskaltzaindiak kaleatuak.

10. HITZ EGIN metodoa bilduma. Sail honetan, euskararen irakaskuntza eremuan, hogeita sei / 26 liburuki argitaratu ditu Euskal Akademiak.

11. LITERATURA KLASIKOA. Esparru honetan gure hizkuntzaren 'klasikoak' izeneko idazleen liburukiak berrargitaratu ditu Euskaltzaindiak, gehienbat. Dagoeneko, hamahiru /14 liburuki argitaratu ditu Euskararen Erret Akademiak, azkena lehentxoago aipatu duguna, alegia: *Antoine d'Abbadie: 1897-1997*, hain zuzen ere.

12. BATZUK. Bilduma edo sail honetan, esparru jakinik gabeko argitalpenak zehazten ditu Euskaltzaindiak, 29 liburuki, hain zuzen, eta besteak beste, Pedro de Yrizar jaunak euskal aditz laguntzaileari buruzko 10 liburuki eta laster batez hurrengo hau izango dugu argitaratua, alegia: *Morfología del verbo auxiliar bajo-navarro occidental*. Liburukia babesa Gipuzkoako Kutxa, Bizkaiko Bilbau Bizkaia Kutxa, Nafarroako Gobernua eta Euskal Herriko Unibertsitateari zor die Euskaltzaindiak.

13. Sarituriko lanak. Eremu honetan, Bilbao Bizkaia Kutxa eta Euskaltzaindiaren artean, urtero, 1979.etik gaur egun arte, antzerki, eleberrri, olerki eta gazte mailan idatziriko lan sarituak kaleratzen ditu. Dagoeneko hogeita hamazortzi liburuki kaleratu ditu Euskal Erret Akademiak.

14. Jokin Zaitegiren ITZULPENAK. Sail honetan Jokinek buruturiko itzulpenak azaltzen zaizkigu, besteak beste, Greziako Platon idazlearen itzulpenak.

15. KATALOGOAK. Esparru honetan liburuki bi argitaratu ditu Euskaltzaindiak, alegia, L.L. Bonaparteren *eskuizkribuak* eta *Bibliografía bonapartiana*.

\* \* \*

#### Eranskina:

16. Une honetan silutegietan dauzkagun argitalpenak jarraikook dituzue, hots:

16.1. EUSKERA, 1998, 1.



16.2. VASCONIANA. R. Lafonen artikulu hautatuak. IKER 11.

16.3. URRETXU ETA ZUMARRAGAKO TOPONIMIA. J.L. Ugarte, Onomasticon Vasconiae, 18.

16.4. TOPONIMIA MEDIEVAL EN EL PAIS VASCO: Letras G-O. Angeles Libano. Onomasticon Vasconiae, 19.

16.5. MORFOLOGIA DEL VERBO AUXILIAR BAJO-NAVARRO OCCIDENTAL. Pedro de Yrizar.

16.6. VOCES ALAVESAS. Gerardo Lopez de Guereñu Galarraga.